

# Osoko bilkura

Donostian, 2013ko maiatzaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, euskaltzainburordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
Azkarate, Miren,  
Davant, Jean-Louis,  
Goenaga, Patxi,  
Iñigo, Andres,  
Lakarra, Joseba,  
Lizundia, Jose Luis,  
Oihartzabal, Beñat,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sagarna, Andoni,  
Salaberri, Patxi,  
Sarasola Ibon,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi,  
Zabaleta, Patxi eta  
Zalbide, Mikel.  
Osa, Erramun, Zabaleta, Joseba, Mujika, Alfontso eta Gurrutxaga, Antton, zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Arejita, Adolfo ahala X. Kintanari; Irazu, Jose «Bernardo Atxaga»k, ahala A. Urrutiari; Salaburu, Pellok ahala M. Azkarateri.

Batzarra goizeko 10:15ean hasi da Donostiako Luis Villasante Euskararen ikergunean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak etorririko euskaltzain guztiak agurtu ditu, eta ondoren maiatzeko Osoko batzarrari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordena ezarriz.

## 1. Osoko bilkurako (2013-04-26) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Iritsi diren oharrak erantsita, behin-behineko bilera-agiria banatu da. Ondoren, M. Azkaratek egin dituen oharrak irakurri ditu. Horiek horrela, laugarren orrialdeko «P. Salaburuk XVIII. Barne Jardunaldietan aurkeztu zuen ...» pasartearen amaiera era hone-

tara geratzea onartu da: «Era berean, M. Azkaratek eskatu du oharra alde zurreratik bidaltzeko Gramatika batzordeko buruari. Hala egiteko ahaleginak egingo direla esan da.»

Era berean, 7. orrialdean 14.7 xedapena dela eta, M. Azkaratek adierazi du komeni dela eztabaidaren nondik norakoak zehaztea. Ondorioz, pasarte honela geratu da: «Eztabaida izan da, batetik, komeni ote den batzorde jakin bateko euskaltzain osoen eta gainerako batzordekideen arteko bereizketa egitea. M. Azkaratek adierazi du berdin izan daitekeela «batzordekideen» edo «batzordeburuaren» jarreza. Bestetik, «kontuan harturik» aditz esapidearen esanahiak ere zalantza sortu du; horren ordez, «entzunik» jar daitekeela onartu du M. Azkaratek. Azkenik, 14.7 xedapenean egin litezkeen aldaketak batzordeei bakarrik ote dagozkien ala lantalde eta egitasmoekin ere berdin jokatu behar litzatekeen galdetu du A. Urrutiak. Barne-erregelen artikulua horretan batzordeak baino aipatzen ez direnez, horretara mugatu duela proposamena erantzun du M. Azkaratek. Baina aipatu da Barne-erregelak beharko dutela irakurketa patxadazkoa horrelako kontraesanak saihesteko. Beraz, gaia onbideratzeko hurrengo Osoko Bilkuretarako proposamen bat ekartzeko erabakia hartu da.»

J. L. Lizundiak bi ohar egin ditu; batetik, 6. orrialdeko «Batzorde ahalduaren osaketa dela eta...» paragrafoaren azken esaldiaren harira; eta bestetik, 9. orrialdeko 5.4 puntuari. Horiek horrela, lehenbiziko iruzkina honela geratu da: «J. L. Lizundiak ohar-proposamenak egitea euskaltzain baten eskubidea eta obligazioa ere izan daitekeela argitu ondoren, oharrok erretiratu egin ditu». 5.4. puntua, ordea, honela idatzirik geratu da: «5.4. J. L. Lizundiak zuzentzen duen Euskaltzaindiaren historia egitasmoa. J. L. Lizundiak galdetu du martxoko XVIII. Barne Jardunaldietan «Egitasmo Instituzionalak» aztertzea hurrengorako utzi zenez gero, gaur aztertuko ote diren. A. Urrutiak adierazi du Zuzendaritza J. L. Lizundiarekin hitz egiten ari dela, egitasmo horren zuzendaritza eramateko baldintzak adosteko asmoz. Adostasuna lortu ondoren, gaia Osoko Bilkurara ekarriko duela esan du. Gauzak horrela, J. L. Lizundiak orain arte izan duen zuzendaritza zereginean desistitzen duela adierazi du. Honi buruzko argibideak aurrerago azaltzeko asmoa daukala ere gaineratu du.»

M. L. Oñederrak ere, ahoz, 5. orrialdearen hasierako bi lerroak egokitzeko eskatu du. Horiek horrela, honetara geratu da pasarte: «Hari horri tira eginez, M. L. Oñederrak azaldu du zergatik Ahozerarena lantaldea den, eta ez batzordea. A. Urrutiak gehitu dio Urkiolako Barne Jardunaldietan halaxe eratzeko erabaki zela.»

Ohar horiek jaso dira eta bilera-agiria ontzat eman da.

Exonomastika batzordeko idazkaria den Alfontso Mujika eta Zientzia eta Teknika hiztegiko Antton Gurrutxaga beranduago etorriko direnez gero, aztergaien laugarren puntua jorratu da.

**4. XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko txostenei, aurkitegiari eta barne-erregelak egokitzeko proposamenei eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz**

Hasteko, M. Azkaratek eta A. Urrutiak Barne-erregeletako 14.7 xedapenari buruz eginiko eztabaidari, aurreko Osoko bilkuratik datorrenari segida eman zaio. Puntu honi dagokionez, proposatu dena aurretiaz oharrik jaso ez duten Barne-erregeletako zenbait artikuluekin kontraesanean dagoela adierazi da, hala nola, 29.10, 47 eta 48 artikuluekin. Ondorioz, halakoa onartzuz gero, orrazketa orokorra egin beharko litza-tekeela esan da. Oro har, ondo ikusi da Osoko bilkuran batzordeetan, lantaldeetan edo egitasmoetan ari diren euskaltzain osoen eta gainerako kideen iritziak entzun ondoren, Zuzendaritzak horiek Osoko bilkurara eramatea. Nolanahi ere den, J. Lakkarrak adierazi du batzorde, lantalde eta egitasmo guztiak ez direla maila berekoak.

J. L. Lizundiak esan du horrek ukituriko artikulua hurrengo batean berrikusi beharko litza-tekeela, kontraesanak baztertu edo zehaztaperen ezberdinak ekarri eta erabakitzeko. A. Urrutiak, bere aldetik, Barne-erregeletan jasorikoa *de iure* horrela izan arren, *de facto*ko prozedura bestelakoa izan dela gaineratu du. B. Oihartzabalek batzordeetatik helduriko proposamenak Zuzendaritzak tramitatu eta aurrera ekartzeko dituela eta, prozedura hori izkribuz finkatzea eskatu du.

M. Azkaratek 14.7 xedapenari dagokion testua finkatu nahiko luke. Beste horrenbeste adierazi du P. Goenagak *ad kalendas graecas*-erako utzi gabe. J. L. Lizundiak ere puntu hori aditu batzuekin (B. Oihartzabal, P. Zabaleta...) tratatu nahi luke, udazkenean edo, Zuzendaritzaren ponentziarekin adosteko. X. Videgainek beharrezkoa dakusa batzorde horretan M. Azkarate, J. L. Lizundia, B. Oihartzabal eta P. Zabaleta izatea.

A. Urrutiak adierazi du, Zuzendaritzari zor zaion errespetuagatik, berorri utzi behar zaiola horretan gogoeta egiten. P. Uribarrenek uste du koordinazioa Zuzendaritzari dagokiola, gramatika, hiztegitzinta edo dialektologian zeinek bere kontutik jokatu gabe. Koordinazioa Zuzendaritzak hartu behar duela esan du.

M. Azkaratek galdetu du ea onartzen den 14.7 xedapenean batzordeetan, lantaldeetan eta egitasmoetan ari diren euskaltzain osoekin kontsultatzeke borondatea

idatziz jartzea. A. Urrutia bat dator irizpide horrekin, baldin eta batzorde, lantalde eta egitasmoen kideak ere aintzat hartzen badira.

14.7 artikuluari eginiko oharrak eztabaidatu ondoren, Barne-erregelaren 45. artikuluari eginikoak aurkeztu eta eztabaidatu dira. «Batzorde iraunkor bakoitza gutxienez bost lagunek osatuko dute eta gehienez, hamabik» izan da eztabaidatu dena. Gehienezko hamabiko kopurua dela eta, M. Azkaratek, P. Goenagak eta A. Urrutiak egin dizkiote oharrak. P. Goenagak eskatu du aldatzea, hots, XVII. Barne Jardunaldiak egin aurretik zegoen eran uztea, gutxieneko kopurua jarritz baino gehienezko kopurua zehaztu gabe. A. Urrutiak proposatu du Batzorde iraunkor bakoitza gutxienez bost lagunekin eratzea eta gehienez hamabost lagun izatera iristea. Hori proposatzeko, ekonomia izan du hizpide. J. L. Lizundiak gogoratu du lehen ere ez zela onartu kopuruak mugatzea.

Iritzi-trukearekin amaitzeko, irizpide ekonomikoak eta akademikoak kontuan hartuz, Batzorde iraunkor bakoitza gutxienez bost lagunekin eratzea eta gehienez hamabost lagunekin mugatzea hobetsi da.

Barne-erregelaren 45. artikulua eztabaidatu ondoren, Osoko bilkuran etena egin da. Izan ere, Herri Literatura batzordeak antolatutako jardunaldietako txostenak eta gaurtik aurrera Euskaltzaindiaren webgunean eskainiko direnez gero, eginiko lanaren aurkezpena egingo da. Euskaltzainen eta hedabideen aurrean egingo den agerraldian, A. Urrutia euskaltzainburuak eta Pello Esnal batzordeburuak parte hartuko dute.

Aurkezpenaren ondoren, 12:15 direnean Osoko bilkurari segida eman zaio.

M. Azkaratek eta A. Urrutiak Barne-erregelaren 49. artikuluari eginiko oharrak aurkeztu dira. Euskaltzainburuak galdetu du ea horrek zer-nolako planteamendua behar duen, ez baitago inon arauturik. M. Azkaratek ulertzen du horren prozedura eta antolamendua arautu beharko litzatekeela geroko batean.

I. Sarasolak ez dakusa horren beharrik eta era horretako figura berriak sartzea konplikazioa dela iruditzen zaio. B. Oihartzabalek uste du batzorde bakoitzak baduela bere barne ibilbidea egiteko eskubidea, eta hor autonomiaz jokatzeko askatasuna utzi beharko litzatekeela. Horren harira, A. Urrutiak gogorarazi du autonomia ez dela anarkia, eta koordinazioa eta ekonomia ere hartu behar direla kontuan, besteren artean, kudeatzailearekin hitz eginez.

M. Azkarateren arabera talde-eragile ere izan daiteke, batzorde eragilearena. I. Sarasolak uste du hobe litzatekeela izenik ez ipintzea. A. Sagarnak, bere aldetik,

oharra egin du, gehiegizko erreglamentismoaren arriskuan ez erortzeko. P. Uriba-  
renen iritziz ez da halakorik behar.

Iritzi-trukearen amaieran M. Azkaratek hitza hartu du eta adierazi du proposa-  
mena erretiratzen duela. Nolanahi ere den, onartu zaio gisa horretako talde anto-  
laketa Gramatika batzordean zein bestelakoetan izatea, Barne-erregleetan adieraz-  
ten duten bezalaxe..

Horren segidan, 64. artikuluari P. Goenagak, M. Azkaratek, J. L. Lizundiak eta  
A. Urrutiak eginiko oharrak aurkeztu eta eztabaidatu dira.

A. Urrutiak, Kataluniako *Institut d'Estudis Catalans*-eko *Secció Filològica*-ren  
antzera, hautagaien profila aurretik zehaztu beharko litzatekeela esan du, bai  
osoentzat, bai eta urgazleentzat ere. Hor gogoeta sakona beharko da, Euskaltzain-  
diaren etorkizunari buruz. M. Azkarate bat dator iritzi horrekin, gaiak patxadaz-  
ko gogoeta sakona merezi du eta. Bere aldetik, J. Lakarrak hautagaien merezi-  
menduak azaldu eta aurkeztu beharko liratekeela esan du. J. L. Lizundiak  
azpimarratu du Euskaltzaindiaren beharrak, komenentziak eta hautagaien mere-  
zimenduak azaltzeko aukera ere eskaini beharko litzaikeela hautagaiak aurkez-  
ten dituztenei.

Gai beraren inguruan, euskaltzainburuak esan du gustatuko litzaikeela J. M.  
Torrealdaik Azkue Bibliotekari buruz prestatu duen bezalako txostena izatea, hor  
Euskaltzaindiaren egoera eta premia nagusiak ager daitezen, Euskaltzaindiaren  
etorkizuna baita jokoan.

P. Zabaleta bat dator J. Lakarra eta J. L. Lizundiarekin, hautagaien merezimen-  
duen azalpena eta aurkezpena egiteko aukerarekin, baina ez gehiagorekin. X. Vi-  
degainek horretarako askatasuna erabiltzea eskatu du, baina ez unibertsitateko  
merezimendu-eskala hertsiaeren arabera jokatzuz. Horren ondorioz, merezimenduak  
agertzeko aukera eskaintzea erabaki da, berorrez baliatzea aukeran utzirik, Barne-  
erregelek behar duten patxadazko idazketa horretan puntu hau jasoz.

M. Azkaratek, A. Urrutiak eta J. L. Lizundiak Barne-erregelen 67. artikuluari  
eginiko oharrak aurkeztu dituzte. M. Azkaratek Osoko bilkuren eskubide-egin-  
beharrak zehaztu/jaso egin beharko liratekeela esan du, hori zehazteko gogoeta  
irekiz. Euskaltzainburuak gogorarazi du erakunde baten aginte-organo gorena Oso-  
ko batzarra dela, erakundearen osotasuna gogoan izanda. J. L. Lizundiak egin duen  
ekarpenean 67.5 xedapena osatzera datorren iruzkina egin du. Iruzkinean, Osoko  
bilkurari legezkiokoen egitekoak proposatzen ditu.

J. Lakarrak araudietan banaketak nola egiten diren gogorarazi du, eta, organo bakoitzak dituen ahalmenez kanpokoak delegatzea dagoela gaineratu du. J. L. Lizundiak subiranotasuna Osoko batzarrari dagokion arren, proposamenak aztertzeko eta kritikatzeko epeak ematea eskatu du. P. Zabaletaren ustez, Osoko batzarrari dagokio erabakitzeak azken hitza, eta hori ez litzateke mugatu behar. Bestalde, galdetu du zeintzuk diren munta handiko gaiak. Ondorioz, 67. artikulua orain arte egon den eran uztea proposatu du. M. Azkaratek eta J. L. Lizundiak egin dituzten ekarpenak kontuan hartzea eskatu dute. Nolanahi ere, Barne- erregelek behar duten patxadazko gogoeta horretan puntu hau ere jorratzea hobetsi da.

Aurrekoaren ondoren, Barne-erregelei eginiko oharrei buruzko eztabaida etetea eta hurrengo Osoko bilkuran segida ematea erabaki da.

XVIII. Barne Jardunaldiei segida emanez, Aurkitegiko Hiztegi Batuko lantaldearen osaketa aurkeztu du A. Sagarnak. Ondorioz, Hiztegi Batuko lantaldearen 2013-2016 aldirako osaketa honela geratu da:

Arduraduna: Urkia, Miriam.

Kideak:

- Aduriz, Jose Antonio
- Arrarats, Irene
- Arregi, Ainhoa
- Baraiazarra, Luis
- Dufau, Aines
- Gurrutxaga, Antton
- Rekalde, Paskual
- Sagarna, Andoni

Aholkularia:

- Davant, Jean-Louis

P. Salaberrik, bere aldetik, XVIII. Barne Jardunaldietan Onomastikaren eremuan egin behar dituen koordinazio zereginak betetzeko, P. Rekalde Onomastika batzordeko kide izatea komeni dela esan du. Onartu da, beraz, eta haren izena gehituko da.

Puntu honekin amaitzeko, I. Sarasolak honelako gaiak tratatzeko era luzeegiagatik protesta egin du, Osoko batzarraren gainerako arazoei denbora kentzen dietelako.

Aztergaietan aurreikusiriko laugarren puntua aztertu ondoren, bilera-deiko 2. gaia aztertu da Osoko bilkuran.

## 2. Exonomastika

**2.1. Astronimia (V); kometak, izar iheskorrak, galaxiak eta beste. Onartze-ko, hala erabakiko balitz.** Ordu bat eta hamarrean sartu da batzar aretoan Alfonso Mujika, Exonomastika batzordeko idazkaria, eta euskaltzainak agurtu ditu. X. Kintana batzorde bereko arduradunak hitza eskaini dio. Azaldu duenez, proposamenari oharrrik ez zaio egin. Nolanahi ere den, martxoaren 22ko Osoko bilkuran Astronimiako araugaiaren azken atala aurkeztu zenean, euskaltzain batzuek aipatu zuten ezen, galaxien izenei dagokienez, **Xren galaxia** moldearen ordezkari egokiagoa izango zela aposizioak erabiltzea **X galaxia**, ikusirik kometekin eta beste objektu batzuekin hala proposatu dela. Ondorioz, *Astronimia. Galaxiak eta nebulosak. Aposizioak ala eraikuntza sintagmatikoak* txostena aurkeztu da. Txostenean, Exonomastika batzordeak aurkezturiko autozuzenketa hobetsi da Osoko bilkuran.

**2.2. Planeten jatorri-adjektiboak. Onartu, hala erabakiko balitz.** Planeten izenetatik sorturiko adjektiboen zerrendaz ez da oharrrik aurkeztu. Horiek horrela, martxoaren 22an aurkeztutakoa bere horretan onartu da.

**2.3. Greziar alfabetoko letren izenak arautzeko proposamena onartu, hala erabakiko balitz.** I. Sarasolak eta X. Videgainek egin dituzte oharrak. Ohar horiek kontuan izanda Exonomastika batzordeak letra batzuen izenen grafiak birkontsideratu eta ahoskerak egokitu ditu. Era berean, kh-rako jarririko oin-oharra kentzea erabaki da. Ondorioz, greziar alfabetoko letren izenen zerrenda ontzat eman da.

## 3. Zientzia eta teknika hiztegia

**3.1. «Izen berezia + (-en) izena(a) egiturako terminoak» onartu, hala erabakiko balitz.** Biltzar aretora sartu eta bilduak agurtu ditu Antton Gurrutxagak. Aztertze gaia dela eta, beste hizkuntzetako adibideak eta jokabideak azaldu ditu xeheki. Euskarazko testuen lekukotasunaren arabera, halako proposamenak egin ditu, gisa bereko kasuetan jarraibide berbera eredutzat harturik. M. Azkaratek aurkezturiko txostena ere horrekin bat datorrela ikusita, proposamena ontzat eman da.

**3.2. «Matematika: oinarrizko hiztegia» onartu. Hala erabakiz gero.** Era berean, A. Gurrutxagak *Matematikaren oinarrizko hiztegiaren* proposamenari, aurreko hilean aurkeztuari inork ez diola oharrrik aurkeztu esan du. Beraz, onarturik gelditu da.

Euskaltzainburuak, M. Azkaraterekin bat etorritik, lexiko-material hauek testu-gintzan eta irakaskuntzan izan ditzaketan ondorioengatik, lehenbailehen jakinarazi eta barreiatzea komeni dela esan du.

## 5. Eskuartekoak

**5.1. Euskaltzaindiaren Iparraldeko urteko batzarra.** Maiatzaren 22an egin zen Ipar Euskal Herriko euskaltzainen bilkura, Baionako ordezkarietan. Frantziako Estatuko Elkarte-legeak dioena betetzeko, bilera hau urtero egiten da, eta hor Ipar Euskal Herriko euskaltzainek –oso, ohorezko eta urgazleek– parte hartzen dute. Horiez gainera, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak ere izan ziren.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman zion bilerari. Ondoren, 2012ko ekitaldien txostena aurkeztu zuen Xarles Videgain iparraldeko ordezkariak. Bestalde, Joseba Zabaleta kudeatzaileak 2012ko kontuen txostena eta 2013ko aurrekontua aurkeztu zituen. Azkenik, 2012. urteari zegokion Aditegi txostena ere aurkeztu zen.

**5.2. Euskaltzaindiak Frantziako Kultura eta Hedabideen ministroari bidaliriko gutunaren berri eman, 2012ko ekainaren 23an igorriarena.** Europar Estatuetan mintzatzen diren eskualdeetako hizkuntzen eskubideen alde karta bat sinatua dute Europar Batasunaren kide gehientsuenek, Frantziako Estatuaren salbuespenarekin. Horrek hainbat hiztunen eskubideak urratzen ditu, Iparraldeko euskaldunenak bereziki. Hortaz, eta iparraldeko hautetsi, kultura eta irakaskuntza arloetako lagun askoren protestari atxikiz, Euskaltzaindiak gutun bat bidali dio Hezkuntza-ministroari, besteren artean, euskararen eta Frantziako beste hizkuntzen ofizialtasuna onar dezan.

**5.3. Eusko Jaurlaritzari jarririko helegitea kendu da.** Aurreko legealdian, Eusko Legebiltzarrak Euskaltzaindiarentzat onartu zuen diru-laguntzaren zati bat (190.000 euro) Eusko Jaurlaritzak atxiki zuela eta, Akademiak helegite bat jarri zuen epaitegian. Harrezkero, Eusko Jaurlaritza berriak arazo hori konpontzeko, 2013. urtearen barruan, ohiko diru-laguntzatik aparte, Euskaltzaindiarentzat 190.000 euroko laguntza bideratzeko prozesua hasi duenez gero, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak helegitea kentzea erabaki duela jakinarazi da.

**5.4. Euskadi Literatura saria, itzulpen arlorako epaimahairako Euskaltzaindiaren ordezkaria.** Jose Austin Arrieta euskaltzain urgazlea izatea proposatu du Zuzendaritzak, 2013ko maiatzaren 16an eginiko bilkuran.

**5.5. Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena.** K. Rotaetxe euskaltzain ohorezkoa, gaixotasun luze baten ondorioz, 2013ko maiatzaren 2an hil dela jakinarazi da. Haren hileta-elizkizunak Bilboko Done Bikendiko elizan egin eta hara Euskaltzaindiko Zuzendaritzako zein gainerako kide ugari joan ziren.



Haren hilberri txostena Xabier Alzibar euskaltzain urgazleak prestatzea proposatu du Zuzendaritzak, 2013ko maiatzaren 16an eginiko bilkuran. Onartu da Osoko bilkuran.

**5.6. Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra.** Euskaltzaindiaren ekaineko batzarra Eusko Legebiltzarrean egingo da hilaren 28an. Egun berean, Orotariko Euskal Hiztegiaren bertsio elektronikoa berritua ere aurkeztuko da, Eusko Legebiltzarreko Tomas Moro gelan.

## 6. Azken ordukoak

**6.1. Ahoskera Lantaldea Batzordea bihurtzeko proposamena banatu da.** M. L. Oñederrak proposamen idatzi bat banatu du, horren helburuak, egitekoak, eta osakideak proposatuz. Idatzia 4. puntuari dagokio eta aurreko Osoko bilkuran eskaturikoa da. Nolanahi ere, denbora faltaz ez da ahoz aurkeztu. Horiek horrela, txostenari ekarpenak egiteko tarte ireki da, ekainaren 19an amaitzen dena. Hurrengo Osoko bilkuran txostena eta iristen diren oharak aurkeztu eta eztabaidatuko dira.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da, 14:05 direnean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,  
idazkaria